

bidegileak



Juana Atxabal (1932-)

Egilea:

IÑAKI SARRIUGARTE IRIGOIEN

Lehen ikasketak

Juana Atxabal Agirreamalloa 1932.eko urtarrilaren zortzian jaio zen Bizkaiko Ispaster herriko *Guaneko* baserrian, lau neba-arrebetan bigarrena izanik. Jaiotetxea Lekeitio ondoko Gardata auzunean zegoen eta elizaz Lekeitiokoa zenez, bertan bataiatu zuten hurrengo egunean. Gurasoak, biak ispasterarrak, Valentin Atxabal Atxabal eta Mercedes Agirreamalloa Arribillaga izan zituen.

Lehenengo ikasketak Gardatako eskola txikian egin zituelarik, aitzak animatuta, Juana gaztetxoa Lekeition hasi zen batxilergoko sarrera eta lehenen-



Juana Atxabal Agirreamalloa (1932-)

go kurtsoak prestatzen izeko Fermina Agirreamalloa moja mertzedariak eta Paulino Alonso eta Juanita Benito irakasleek lagundurik. Geroxeago, hamabi urteko neskatila zela, Gasteizera aldatu zen ikasketak bertan jarraitzeko. Batxilergoa amaiturik, maistra izateko karrera hasi eta 1951n titulua lortu zuen. Urte bereko urriaren 27an Jainkoaren

deiari erantzunez, moja sartu zen Gasteizko Karitateko karmeldarren nobiziaduan eta 1952ko maiatzaren 2an abitua hartu zuen. Bitarte horretan, 1952ko urtarrilaren 10ean, ama hil zitzaion. 1954ko irailaren 14an behin-behineko botoak egin zituen Gasteizen eta 1959ko irailaren 20an behin betikoak Bermeon.

Maistratzako ikasketak eginda zituenez, 1954-1965 epealdian irakasle jardun zuen Bermeoko «Sagrado Corazón» ikastetxean. Moja gazteak, hala ere, irakasteaz gain, ikasten ere badihardu eta 1961ean Letretako Irakasle Laguntzaile diploma eskuratu zuen.

Ameriketara

Bermeoko ikastetxean hamabi urtez jardun eta gero, Juana Atxabalek bere bizitzan funtsezkoa izango den epe berri bati ekingo dio; eta 1965ean Hego Ameriketara abiatuko da goi mailako ikasketak egitera, Kolonbiako Bogota hiriburura hain zuzen ere. Maistra gazteak gehien maitatzen zuen jakintza arloa Matematika bazen ere, kongregazioaren beharrianek bultzaturik Filosofia ikasketak hasiko ditu, baita bikaintasunez burutu ere. 1970. urtean Bogotako «Pontificia Universidad Católica Javeriana»-n Filosofia eta Letretako lizentziatura lortu zuen.



Ispaster herriko Gardata auzunean jaio zen Juana Atxabal

Bogotako Unibertsitatean hasi zen Juana Atxabal filosofia arloko ikerketak eta lan monografikoak egiten eta garaitsu horretakoak ditugu Jean Paul Sartreren obrari buruzko lehen lan garrantzitsuak. Izan ere, «Conciencia vacía, libertad y Dios en Jean Paul Sartre» izan zen Juanak lizentziatura tesian erabili zuen gaia. Lana zuzendu zion irakasleak monografiaren aurkezpenean biziki goraipatu zituen lizentziatu berriak zeuzkan prestakuntza eta meritua. Hona hemen zuzendariak Juanak eginiko lanaren alde aipaturako arrazoiak: Sartreren obra filosofikoaren zein literarioaren ezagutza zabala, filosofia eta antropologia gaien tratamendu sakona,

aurkezteko modu egokia, eta, azkenik, Sartreren pentsamendua iruzkintzeko erakutsi zuen sakontasuna eta inpartzialtasuna.

Lizentziatura lortuta Euskal Herrira itzuli zen moja gaztea eta Zumaian egotaldi labur bat egin eta gero, 1971. urtean Ameriketara doakigu berriro, oraingo honetan bihotzaren erditik maitatzera helduko zen Venezuelara, hain zuzen ere. 1971-72 ikasturtean Anzoátegui estatuko Cantaura herrian egon zen Juana Atxabal eta bertan karmeldarrek zeukaten «Santa Joaquina» ikastetxean irakasteaz gain, «Dr. Felipe Guevara Rojas» lizeoan ere aritu zen, kasuon latin irakasle bezala. Cantaura herritik Venezuelako hiriburura



Argazkian Lekeitioko portua. Atxabaldarren baserria elizaz Lekeitiokoa zenez, bertan bataiatu zuten Juana. Ama hiltzean eta Juana moja sartzean, haraxe aldatu zen familia, gaurko S. Arana kaleko 23. atarira, hain zuzen ere. Edozelan ere, Valentin aita ez zuen inoiz eten etxearekiko lotura, egunero joaten baitzen *Guaneko* baserrira

joan zitzaigun eta han, Caracasen, «Don Pedro Fe y Alegría» institutuan lan egin zuen, harik eta 1973an Catiara joan zen arte.

Catia Caracasko auzune pobre eta marjinal bat zen Juana bertara heldu zenean. Venezuelako hiriburutik hurbil samar egon arren, pobrezia eta miseria ziren nagusi auzuneko txabola eta *ranchito*-etan. Catiako mendi maldetan baztertu eta behartsuek eraikitako teitatupe single eta ahuletan mundu berri bat, gizarte maitagarri bat aurkitu zuen Euskal Herritik joandako moja gazteak. Hona hemen haren berba esanguratsuak: «Hemen gauza asko aurkitu nituen... ederrak, harri-garriak, oso diferenteak ordura arte bizi izandakoaren aldean. Baina, batez ere, herri latinoamerikarrak jasaten zuen pobreziaz eta opresioaz egin nuen topo. Pobrezia eta opresio hauek ez ziren, kasurako, nik umetan eta

nerabezaroan baserrian bizi izandako pobrezia eta zailtasunak, gehiengoak pairatzen zuen egoera ikaragarri eta inhumanoa baizik. Hasi-eran Bogotako auzoak; eta, gero, Caracasko mendixkak, *rancho*-ak: ez nuke esaten jakingo zein neurritan markatu ninduten».



Juana neba Txominekin lehenengo jaunartze egunean



Juana Atxabalen gurasoak: Valentin Atxabal eta Mercedes Agirrearmalloa



Gardata auzuneko eskola zaharra.
Hantxe egin zituen bere lehenengo ikasketak Juana Atxabalek

Catia: pobreen aldeko aukera

70eko hamarkadan Venezuelen hausnarketa sakon bat egin zen bertako erlijiosoen artean eliz bizitzak herri baztertu eta zapalduen inguruan eman beharreko erantzunaz. Juanak zuzen-zuzen eta era aktiboan hartu zuen parte hausnarketa horretan. Honen guztiaren ondorioz, vedrunatar karmeldarrek Venezuelako lehenengo bi «Comunidades de Base» direlakoak sortu zituzten. Komunitate horietako bat Catian (Gramoven Los Magallanes) sortu zen eta Juana Atxabalekin batera Montserrat Garreta eta Dolores Barandiaran ahizpak izan ziren fundatzaileak.

Catiako jende pobre eta baztertua ezagutu eta, moja adoretsuek analfabetismoari aurre egiteko premia gorria dakusate eta umeentzako aurre-eskola ez eze, helduentzako zentroa ere zabalduko dute, herri xehea mendeetako morrontza kulturaletik irten ahal izan zedin. Hor Juanak umetxoekin egingo du lan eta ume horien ama sufrituekin bat egingo du. Izan ere, gizarte pobre horretan are baztertuago aurkitzen ziren emakume haiek kide eta lagun izan zuten Juana, eta utopiari leiho handi bat zabaldu zioten.

Urte gogor ere gogorrak izan ziren moja karmeldar jatorrentzat, baina lanak ez ditu kikilduko ezta atzeratuko ere: bateko bilerak



Lau neba-arrebak. Ezkerretik hasita: Juana, Txomin, Mertxe eta Ana Mari



«Sagrado Corazón» ikastetxea Gasteizen, gerra osteko urteetan. Bertan burutu zituen Juanak batxilergo eta irakasle-ikasketak

eta hausnarketak; besteko ikasi eta irakatsi beharra; hurrengoko diru eza... Ekonomiari dagokionez, estutasunak handiak zirenez, komunitateko partaideak lan ordaindu bana lortzen ahalegindu ziren eta Juana Atxabalek 1973-76 ikasturteetan jesuitek Catian zeukaten «Jesús Obrero» institutu politeknikoan egin zuen lan, gaztelania eta literatura irakasten.

Baina lanez gainezka egon arren, nekeak ez du akitzen Venezuelako pobreen aldeko apustua egin duen karmeldar euskalduna, gorputzez txikia, bai, baina adorez eta bihotzez handi ere handia dena. Denbora zelan edo halan lortuz, astiunei-edo kenduz, ikas-

ten eta bere burua jakinduria berriz janzten jarraitu du Juanak eta 1974-75 urteetan gaztelania, literatura eta latin ikasgaietan ikasketak bereziak egingo ditu Caracasko «Instituto Pedagógico» ikastetxean.

1976an Juana Atxabalek «Jesús Obrero» institutu politeknikoko lana utzi eta berak beste batzuekin sortutako «Laboratorio Educativo» izeneko lan taldera bihurtuko da. Talde edo kooperatiba hau 1973an sortu zen eta beronen helburua irakaskuntza eta hezkuntzari buruzko ikerketak eta hausnarketak egitea zen, betiere alternatiba pedagogiko eraginkorrak lortu ahal izateko eta jende pobreenaren zerbitzuan jartzeko. Aipatutako

ikerketa eta lan teorikook «Cuadernos de Educación» izeneko argitarapen batzuetan ematen ziren argitara eta Juanak euretariko bi idatzi zituen: bata, *Lenguaje y Cultura popular*, eta, bestea, *Educación, lucha de clases y cultura popular en Venezuela*.

«Laboratorio Educativo» taldearen izenean, 1975ean, Juana Atxabal Mexikora doakigu eta hango hiriburuan, ekainetik abuztura, «Tribuna Mundial del Año Internacional de la Mujer» izeneko topaketetan hartuko du parte. Jarraian eta Venezuelara itzuli barik, Juana



Irakasle-ikasketak egiten ari zenean,
Karmele Esnal lagun minarekin

Atxabalek Erromarako bideari ekingo dio. Izan ere, 1974tik 1979ra moja langile aspergaitza Venezuelako Talde Probintzialeko ki-dea izan zen eta hango ahizpek izendaturik, Probintziaren izenean hartu zuen parte Erroman irailaren 8tik 20ra vedrunatar karmeldarrek egin zuten XX. Kapitulu Orokorrean.

Aipaturiko Kapitulan moja karmeldarrek Hego Ameriketako hezkuntzari buruzko dokumentu bat argitaratu zuten eta Juana Atxabalek ere bere aportazioa egin zuen erredakzioan. Dokumentuaren izena «Nuestra responsabilidad, hoy, como educadores de la fe en América» da eta *Documentos Capitulares (Capítulo XX)* (1975), izeneko liburuan dago argitaratuta.

Erromatik bueltan, moja euskaldunak pausaldi labur bat egingo du Euskal Herrian Venezuelako lurraldeetara joan aitzin; eta urte bereko abenduan, medikuek hala erabakita, ebakuntza garrantzitsu bat egin zioten Donostian, handik urte batzuetara errepikatu egingo dena. Makalaldi eta ebakuntzok, baina, ez zioten moja euskaldunari lanerako grina eta lagun hurko-behartsuaren aldeko borrokarako adorea kendu. Izan ere, Caracasera berriro heldurik, Juana atzera lotuko zaio pobre eta baztertuen aldeko lan isilari, harik eta 1979an, hausnarketa pertsonal sakon baten ondoren, Euskal Herrira bueltatzea erabakitzen duen arte.



Karitateko karmeldarren Etxe Probintziala Gasteizen: nobiziadu honetan sartu zen moja Juana Atxabal 1951.eko urriaren 27an

Jaioterrira itzuli

1979an, Ameriketako hamalau urte zeramatzanean, Juana Atxabalek bere herriaren deia sentitzen du bere baitan. Euskal Herrira egindako azken bidaiek ukitu sakona utzi dute moja euskaldunarengan eta itzultzea erabakitzen du, ez hausnarketa sakon bat egin gabe. Izan ere, Euskal Herria diktadura krudel eta anker batetik irten berri dago eta etorkizunaren ate-leihoak zabal-zabalik dauzka. Gauza asko zegoen egiteko une hartan, bai esparru sozialean, bai euskal kulturaren suspertze-prozesuan eta baita azken hatsetan zegoen euskal hizkuntza berrindartzeko ekimenetan ere.

Horren guztiaren aurrean, jaio zen lekuan lan egiteko aukera egiten du Juana Atxabalek: «Baina, herri bat kinka berezi baten aurkitzen denean, ez al dira bertako seme-alabak aurreren han egon behar direnak?». Eta beren beregi azpimarratuko du euskal kultura eta euskararen alde lan egiteko zekusan premia larria, eta baita prozesu erakargarri horretan bere hondar alea jartzeko zeukan gogoia ere: «Hizkuntza kultura baten espresabide nagusia da. Kulturaren alde lan egitea bera ere, justiziaren alde lan egitea da; gutxiengoaren alde, txikien alde jartzea».

1979ko martxoan dator Juana Atxabal bere jaioterrira eta lehenengo momentutik gogo-

tsu helduko die itzulera bultzatu zuten arrazoi erlijioso, solidario zein kulturei. Azken hauei dagokienez, bide biri lotuko zaizkie Juanaren ahaleginak: irakaskuntzari eta idazletzari.

Euskal Herrira heldu bezain laster, erlijioa irakasten hasi zen Gernikako institutuan. 1980. urtean, euskarazko titulua beragandu zuen eta 1980-83 ikasturteetan filosofia euskaraz irakatsiko du Ondarroako institutuan, euskarazko irakaskuntzan aitzindariarikoa izanik Bizkaiko lurralde historikoan. Filosofia arloan euskarazko irakaskuntzan gabezia gorria zegoenez, zenbait irakaslek talde berezi bat sor-

tu zuten materialak, apunteak, testuak... itzuli, egokitu edota sortzeko eta Juanak partehartze aktiboa izan zuen Txurdinagako institutuan batzen zen lan talde gogotsu horretan. Urte hauetan, Deustuko Unibertsitatean matrikulatu zen Euskal Filologia ikasteko asmoz, euskaraz sakontzeak irakaskuntzan lagundu egingo ziola uste baitzuen. Lehenengo kurtsuak egin zituen arren, osasun arazoengatik ezin izan zuen karrera berri hau amaitu.

Institutuko agregatu oposizioak gainditurik, Basauriko Urbi institutura doakigu eta bertan ere 1983-1997 ikasturteetan filosofia landuko du, euskaraz betiere. Ibaizabal eta



Bogotan, «Pontificia Universidad Católica Javeriana»-n filosofia ikasten ari zenean (1972). Ezkerretik hasita laugarrena da Juana

Nerbioi ibaiek euren urak nahasten dituzteneko leku horretan, Basauriko Urbin, hartu zuen erretiroa Juana irakasleak, bertako ikasle, irakasle eta langileek 1996ko abenduaren 20an omenaldi hunkigarri bezain samurra eskaini ziotelarik.

Irakaskuntzan emaniko urte hauek, baina, arlo akademikoan ez ezik idazletzaren ikuspuntutik ere joriak izan ziren Juanarentzat eta 1991n Eusko Jaurlaritzaren «Pedro Axular» saiakera saria irabazi zuen *Narziso berriaz gogoetak* lanari esker.


Edozelan ere, irakaskuntza eta idazletza ez dira izango mojaren jardun bakarrak itzulera osteko urteetan. Galdakaoko bere komuni-

tate erlijioso txikian moja nekaezinak lanean jarraituko du, betiere gehien behar zutenei (ezindu, elbarri, behartsu...) bere laguntza eskaintzeko asmoz.

Lehenengo eta behin, Juanaren asmoa moja-komunitatea gizartera zabaltzea izan zen, talde solidario ireki eta zabal bat sortu ahal izateko. Era berean, mojak eurak ere irakaskuntzako beharginak zirenez, gainontzeko langileen eskakizunen eta arazoen inguruan aritzea ezinbestekotzat jotzen zuen Juanak.



Botoak egin zitueneko argazkia (Bermeo, 1959-09-20)



Agirian, Gustavo Gonzálezek, Bogotako «Universidad Javeriana»-ko irakasle eta Juana Atxabalen lizentziatura tesiaren zuzendariak, Juanak J. P. Sartreri buruz eginiko lanaren alde aurkeztutako proposamena ikus daiteke


Eta bere bizitzan ondo erakutsi zuenez, garrantzi handia ematen zion etengabeko presakuntzari, baita euskara edozein arlotan lan-tzeari ere. Baina ideia hutsetan geratu barik,



Juana Cantauran (Anzoátegui, Venezuela) egon zen 1971-72 ikasturtean. Mojen ikastetxean irakasteaz gain, bertako «Dr. Felipe Guevara y Rojas» lizeoan latina irakasten jardun zuen. Argazkian lizeoko irakasle karneta

Euskal Herrian ere behartsuen aldeko auke-ra egingo du Juanak eta horren isla dira, ka-surako, Galdakaoko «Cáritas» taldeetan egindako lan eskerga, gaixoei eginiko bisitak, lan talde desberdinetan eskainitako lagun-tza... Bide beretik, Bilboko Deustu auzoko «Auxilia» taldean ere aritu zen ezinduei-eta klaseak ematen, behar izanez gero euren etxeetaraino joanez.

Jubilatuta ere, Juanak ez ditu alde batera utziko ez elkartasunezko lana, ezta filosofia arloko ikerkuntza ere. 2001. urtean, osasun arazoak zirela-eta, Galdakao utzi eta Gas-teizko Etxe Probintzialera joan zitzaigun eta orain bertan bizi da ahizpa karmeldarrek la-gunduta.



Juanak bederatzi urte eman zituen Venezuelan (1971-1979) eta egotaldi luze horretan erabat lotu zitzaion behartsu eta baztertuen aldeko lanari. Argazkian bertako nortasun agiria

*J*uana Atxabalek Euskal Herrira bueltatzeko zeuzkan arrazoen artean badu bat berarentzat izugarrizko garrantzia duena, hots, euskararen egoera larria eta gurasoengandik ikasi zuen hizkuntzaren etorkizun badaezpadakoa. Hori dela-eta, konpromiso sendoa hartuko du, irakaskuntzatik abiatuta, kinka larrian zegoen hizkuntzari bere eupada emateko. Honela laburbiltzen digu bere asmoa: «Euskararen berreskuratze osoaren aldeko ekimenetan laguntzea (Hizkuntza kultura baten adierazpide nagusia da). Munduan dauden 600.000 euskal hiztun horietako bat naiz».



Hego Ameriketako itsasoan ahizpa karmeldar batzuekin

Moja-komunitatearen zerbitzurako itzulpenak

Dagoeneko, aipatuta dauzkagu Juana Atxabalek Ameriketako gaztelaniaz eginiko lanak. Atal honetan, beraz, Euskal Herrira itzuli eta geroko produkzioari helduko diogu, euskaraz egindakoari, hain zuzen ere. Azken honi dagokionez, nahiz eta narratiban ere ahalegin zenbait egin zituela jakin, lan esparru nagusiok bereizi beharra dago: batetik, moja kar-

meldarrak bere komunitatearen zerbitzu eta erabilpenerako atondutako itzulpenak; eta, bestetik, irakasle-filosofok bere jakintza arloan eginiko aportazio teorikoak.

Bere euskaltzaletasunak bultzatuta, Juana Atxabalek hainbat itzulpen burutu zituen vedrunatar karmeldarrek euren zereginetan erabili ahal izan zitzaizkion, Kapitulu Orokorrenak, kasurako. Honako hauek dira eginiko itzulpenetariko batzuk: *XXII. Kapitulu Jenerala* (Vedruna'tar Maitasuneko Karmeldarrak, Vic, 1987, 24 orr.); edota *Vedruna erroetatik* (XXIII. kapitulu) (Karitateko Vedruna Karmeldarrak, Vic, 1993, 36 orr.). Mojen irakaskuntzari begira, Juanak *Vedruna Hezkuntza Proposamena* (Oñati, 1993, 42 orr.) itzuli zuen, arlo horretan zeukan esperientzia eta ezagutza baliatuz.



Filosofia eta euskara uztartuz

Bigarren atal honi bagagozkio, hiru lan nagusi aipa ditzakegu irakasle euskaltzaleak eginikoen artean, Jean Paul Sartre pentsalari eta filosofo frantziarra, Pentsamendu posmoderno eta Xabier Zubiri filosofo donostiarra ardaztat dauzkatenak, hurrenez hurren.

J.P. Sarrterren inguruan berriro

Existenzialismo humanismo bat da (Kriselu, Donostia, 1988, 135 orr.) liburuan Juana Atxabalek Jean Paul Sarrterren (Paris, 1905-1980) *L'existentialisme est un humanisme* obraren iruzkina egiten du, liburuaren bigarren atalean obraren euskarazko itzulpena damaigularik. Lan honekin Juanak segida ematen dio Bogotan Sarrterren obraren inguruan hasitako ikerketa lanari. Garaitsu honetan frantses hizkuntzan sakontze ikastaroak egingo ditu Bilboko «Institut Française» ikastetxean.

Venezuelako bere moja lagunek diotenez, Juanaren kementa eta lanerako ahalmena azpimarragarriak ziren, baita haren dohain pertsonalak ere: borrokalari nekaezina, bilatzaile porrokatua, entzule bikaina, etengabeko hobekuntza pertsonal zein sozialaren aldekoa, fidela bere printzipioei, eta baita askea pentsatzeko, bere ideiak adierazteko eta ideioi praktikan jartzeko ere. Pobreen aldeko borrokaren erdian Juanak ez zuen bere irribarrea inoiz galdu. 1974ko argazkia

Sarreraren dioskunez, denok ezagutzen dugun gizarte industrial modernoaren garaia da Sartrearena. Itxaropen garaia da, gizakiak aurrerapen teknologiko-zientifikoek zoriona eta askatasuna ekarriko zituztela uste baitzuen. Ez ziren, baina, usteok bete izan. Beste alde batetik, XX. mendeko bi mundu gerra nagusiek eta ondoko *gerra hotza*-k bultzatutako norgehiagoka armamentistak eta mehatxu nuklearrak bi koloso hegemonikoen erdian eta bere gabezia eta ezintasun larrien erdian utzi zuten Hirugarren Mundua. Mundu aberatsaren baitan ere bazterkeria, pobrezia-guneak eta menpekotasun berriek ilundu egingo dute gizakiaren itxaropena. Juana Atxabalentzat, Sartrearen lanak inguru-

ne honetantxe hartzen du bere adierarik sakonena, kontzientzia kritikoaren eraikuntzan laguntzen duelako. Izan ere, Sartrearen lana errotiko askatasuna, erantzukizun eta konpromiso historiko osoaren oinarriak ezartzera datorke.

Bere azterketaren ondorioetan, hiru puntu nagusi azpimarratuko ditu egileak: lehenengo eta behin, Sartrek askatasuna eraikitzeko eta gizaki askea defendatzeko egiten duen ahalegina nabarmenduko du irakasle-filosofoak; geroago, ateismo sartrearrari zenbait galdera luzatuko dizkio moja karmeldarrak; eta, azkenik, emakume euskaldunak Euskal Herriaz eta existentzialismoaz jardungo du.



Catiako argazkia. Catia Caracasko mendebaldean dagoen auzune pobre eta marginal bat zen Juana hara heldu zenean. 1973. urtean beste moja batzuekin batera komunitate txiki baten sorrerari hartu zuen parte Juanak, pobreenen artean bizitzeko eta haien alde lan eginez. Eragin handia izan zuten hango bizipenak Juanarengan

Posmodernismoa aztertuz

Narziso berriaz gogoetak (UEU, Bilbo, 1992, 136 orr.) liburuarekin Juana Atxabalek Eusko Jaurlaritzak ematen duen «Pedro Axular» saiakera saria irabazi zuen; eta sari garrantzitsu hau jaso izanak hedabide askotan agertzera (*ETB, Emakunde, Deia, Diario Vasco...*) bultzatu zuen. Obra honetan Juana Atxabalek mendebaldeon indartu eta zabaldu den pentsamendu posmodernoari buruzko ikuspegi kritiko bat opetsi nahi izan zion euskaldungoari. Hona hemen egilearen asmoa: «Mendebaldeko arlo desberdin orotan hedadura hain zabala hartu duen korronte posmodernoaz hausnarketak egin eta posmodernotasunaren ikuspegi orokor bat euskaraz adieraztea da aurrean daukazun idazlanaren helburua».

Liburuaren hasieran, Modernotasunaren betetasun, ukapen eta amaiera den Posmodernotasuna aurkeztu aurretik, Modernotasunaz arituko da filosofo eta irakasle euskalduna. Haren ustez: «Modernotasunak aukeratu zuen bidea ez baita egokia izan helburu modernistak lortzeko, eta, etorkizunerako egin zituen promes ederren orde, denok ezagun dugun egoera bildurgarri, ilun eta gupidagabea sorterazi baitu. Horregatik, Posmodernotasuna, Modernotasunaren porrotak berak, erreakzioz, gertarazi duen fruitua dela esan dezakegu».

Aurrerago, Posmodernotasunaren aitzindari-tzat daukan F. Nietzsche-ri atal garrantzitsu bat eskainiko dio, hirugarren atalean, zuzenki, Posmodernotasunaz aritzeko. Hortxe kokatuko du Juanak *Narziso berria* eta beronen

Juana bere ahizpa
karmeldarrekin
Catiako *ranchito*-etan.
Moja jatorren ezpainetan
irribarrea; eta haien
buruetan: «Posible da
beste mundu bat
eraikitzea! Utopiari leiho
bat zabaldu beharra
dago!» pentsamendu
bikaina



inguruko kontsumokeria, gorputzarekiko ar-
dura neurriz kanpoko, meta-publizitatea,
eskolaren apatia, neo-hedonismoa, *self-service*
erako erlijiotasuna...; azken batean, giza sub-
jektuaren errotiko substantzia galtze proze-
su orokorra.

Hala ere, Posmodernotasunean den-dena ez
da negatiboa Juana Atxabalen begi zorro-
tzen argitan eta alderdi positibo eta negati-
boen balantzea egingo du liburuaren amaie-
ran: «zeren hor daude, bai, egoera ahularen
indar galtzea, kritikarik eza, konpromisu oro
bazterrean uztea, etabar, etabar, baina arra-
zoi komunikakorra, kulturen eta erlijioen
arteko elkarriketarako ahalbidea eta berta-
tik jokatzeko jarrera ere hortxe piztu eta
ari baita».



Juana Atxabal, hezkuntzaren garrantziaz erabat konbentzituta zegoenez, aitzindaria izan zen irakaskuntzaren berrikuntzan eta beste batzuekin batera «Laboratorio Educativo» izeneko ikerketa eta hausnarketa taldea sortu zuen Caracasen. Hausnakerta eta ikerketak «Cuadernos de Educación» izeneko argitalpenetan ematen zituzten argitara, horietariko bi Juana Atxabalek idatzi zituelarik. Argazkian herri hizkuntzaz eta kulturaz egindakoa ikus daiteke



Catia bezalako auzune marjinatuetan pobrezia eta bazterketa, gehienbat, umek eta emakumeek pairatzen zituzten. Hori dela-eta, Juanak eta bertako komunitateko moja lagunek arreta berezia jarri zuten kolektibo hauen aldeko lanean

Emakunde aldizkarian (1992ko martxoa) eginiko elkarrizketa mamitsu batean, beste galdera batzuen artean, liburuaren nondik norakoak argitzeko balio dezaketen hiru itaun zehatz egiten zizkion Begoña Muruagak Juana Atxabali. Lehenengoan posmodernitatearekiko kezka nondik datorkion: «Ni irakaslea naiz eta baditut beste harreman batzuk ere jendearekin eta, bueno, ebanjelizazioa egin behar duzu, baina beti ere kultura baten barruan. Gaurko kultura ezagutzea inportantea iruditzen zait, eta neure klasea filosofia izatean, bada... hortik datorkit kezka... analisiak egin, ondorioak atara... Hortik sortu zait interesa, neure eginkizunetik, neure konpromisu». Posmodernitatearen definizioa eskatzean, hona hemen erantzuna: «Indibidualismoa, gorputzaren ardura, hustasuna, proiekturik eza, historiari eza, utopien jausiera... hori guztia da posmodernitatea». Azkenik «Narziso berria» nor den esango digu Juanak: «Narziso berria da gaurko hiritarra, bai kale-

koa, bai pentsalari edo artista, pentsamenduaren eta ekintzaren oinarriak utzi eta biluzik, ahul, bere buruaz bakarrik arduratzen dena: oraintxe ondo bizi, ahal bada gazte eta beste guztia hor konpon. Hori da Narziso berria. (...) Narziso mundu aberatsekoa da, iparraldekoa noski, geure kulturakoa. Latino-ameriketara eta Afrikan ez dago Narzisorik, han jendea konprometitua bizi da».

Posmodernotasunaren azterketaren amaiera gisa, filosofo euskaldunak gaurko herritarrok ditugun zenbait eginkizun garrantzitsu azpimarratzen ditu. Batetik, pentsaeraren arloan «pentsaera ahulak» bere baitan daraman totalitarismo eta dogmatismo oro ukatu beharra; eta, era berean, kulturen eta erlijioen arteko elkarrizketa sakondu eta hedatu beharra, Narziso berriaren norberekeriaren ordean, izpirituko, solidaritate eta bertute herritarren erein eta zaindu ahal izateko. Bestetik, indibidualtasunean edota talde-interesetan gelditu

1974-1979 urteetan Juana Atxabal Venezuelako karmeldarren Talde Probintzialeko partaidea izan zen, hainbat bidaia, lan eta bisita egitea suertatu zitzaizkion. 1975ean vedrunatar karmeldarrek Erroman eginiko XX. Kapituluaren hartu zuen parte Venezuelako Probintziaren izenean



gabe, justiziaren aldeko konpromisoaren beharra nabarmentzen du egileak; konpromiso horretan aurkituko baitu posmodernotasunak zientziak eta teknologia berriek damaizkiguten posibilitateak birbideratzeko aukera historiko berria. Azkenik Mendebaldeko gizarte aberatsak, nihilismoak bultzatutako malenkoniatik eta zorigabetasunetik esperantzara heltzeko, behar-beharrezko du pobreen egoeraz arduratzeta eta haien ahotsak entzutea. Hortixe pasatzen da esperantzarako bidea.

Esandakoa poetikoki laburbiltzeko, Pedro Casaldálgaren olerki batez damaio amaiera liburuari: «Nik esandakoari eusten diot: // Justizia / lege eta ohiturak gorabehera, / dirua eta limosnak gorabehera. // Apaltasuna, / neu izateko, benetakoa. // Askatasuna, / gizona izateko. / Eta pobretasuna, / aske izateko. // Fedea, kristaia, / gauzez ibiltzeko, / eta, batez ere, egunez ibiltzeko. // Eta, edozelan ere, anai-arrebok, / nik esandakoari eusten diot: / Itxaropena!».

X. Zubirirekin gizonaz eta Jainkoaz

Goazen bat eginda (argitara eman gabea). Idazleak esaten duenez, obra hau Xabier Zubiriren (Donostia, 1898-Madrid, 1983) *Hombre y Dios* liburuaren itzulpen laburtu eta iruzkindu bat da. Itzulpenaren ondoren, Jainkoa utzi eta dirua jainkotzat hartu duen gure gaurko munduaz dihardu Juana Atxabalek. Egilearen ustez, Jainko gabeko mundu triste honetan gizakia hutsik aurkitzen da, etika hankaz gora, kontinente osoak goseak eta izurriteek jota... Hala eta guztiz ere, ausente nahi den Jainkoaren presentzia esperimentatzen du gizakiak eta mundu gizatiarrago baten eraikuntza aurrera eramateko orduan Jainkoaren presentzia sentitzen du. Era berean —diosku Juanak—, Jainkoa, bere aldetik, gure bila ari da; eta Zubirirekin batera baieztatzen duenez, errealitateak berak garatza misteriora eta horrela, Jainkoarekin,



Argazkian Juanak egindako zenbait lan eta itzulpen. Ezkerrean Erroman egin zen XX. Kapituluako dokumentua (*Documentos Capitulares*, 1975). Liburu horretan Juanak Hego Ameriketako mojek hezkuntzari buruz eginiko dokumentuan («Nuestra responsabilidad, hoy, como educadoras de la fe en América») partehartze zuzena izan zuen. Beste argitarapenak (XXII eta XXIII. Kapituluetakoa dokumentuak), Juanak eginiko itzulpenak dira

gizakia mundu berri bat, bizimodu berri eta justuago bat lortzen hasi daiteke, itxaropenezko ernamuin berriak ureztatuz, ongarriz eta artatuz.

Gizartea benetan aldatuko badugu, eta justizia guztiontzat lortuko bada, Jainkoaren beharra daukagu eta Pedro Casaldáligarekin batera, Haren beharra aldarrikatzen du moja karmeldarrak: «Zuk lege diozun lekuan / nik Jainkoa diot. / Zuk bakea, / justizia, / maitasuna diozunean, / nik Jainkoa diot! / Zuk Jainkoa diozun lekuan / nik askatasuna, / justizia, / maitasuna diot!».

Honakoak lirateke, beraz, eraiki beharreko mundu berriaren zutabeak: bakea, justizia, maitasuna, Jainkoa... Juanaren ustez, oinarri horiekin pausu finko eta sendoak egin ditzakegu mundu berri baten eraikuntzan, betiere Jainkoa gurekin delarik. Baina lan horretara-

ko *talde-ernamuinak* behar dira, hots, lagun hurkoarekiko zerbitzua, justizia, ekologia, elkarriketa, elkarren errespetua, anai-arrebatasuna... gisako balio gizatiarrak lantzeko prest leudekeen giza taldeak.

Juana Atxabalek aitortzen digunez, berak ezagutu egin ditu halako talde solidario eta anaikorrak: «Honelako baloredun elkarte laiko osoro biziak ezagutu ditut Latinoameriketako txiroen artean. Europako gure inguruetan ere, gehienetan —nire esperientzian bederen— parrokia kristau apalen ingurunean mugitzen dira borondatezko talde laikoak, Karitas eki poetan... ».

Talde txikiok ahulak izanagatik, ikaragarritzko ahalmen eta indarra daukate euren baitan eta lanean ikusten ditugun bitartean, mundu berri bat posible dela sinisten dugu, erein den hazia ernetzen bailegoan. Talde-erna-

Hezkuntza arloan zeukan esperientzia eta ezagutza baliatuz, Juana Atxabalek moja karmeldarren «Hezkuntza-Proposamena» dokumentuaren euskal itzulpena burutu zuen, euskararen normalkuntza eta gaurkotze prozesuari bultzada berri bat emanez

Kolonbian Jean Paul Sartrearen inguruan hasitako ikerketari jarraipena eman zion Juanak Euskal Herrira heltzeaz batera. Argazkian frantziar filosofoari buruz eginiko lana: *Existentialismoa humanismo bat da*



muin hauen funtsa eta filosofia Pedro Trigo-
ren olerki batez baliaturik damaigu Juanak:
anai-arrebarteko bizitza erein, ongiaren in-
darrez gaitza gainditu, historia sormenez
ireki, edertasuna antzeman eta komunikatu,
beraien pobreziatik eman, libreki eta pazien-
tziaz maitatu, barkatu eta barkamena eska-

tzen dute. Mundu gizatiarrago baten alde
atsedenik gabe dihardute lanean, zapalkun-
tza ez dute etsipenez onartzen eta justizia-
ren alde errukiorki borrokatzen dute... Az-
ken batean, Jesusen lekukoa daramate euren
baitan.

Obraren amaieran, Pedro Casaldáligaren
olerkiak erabiliz, gonbidapen solidario bat lu-
zatzen dio autoreak borondate oneko gizaki
orori: «Berandu da / baina goizaldea da / pix-
ka bat ahalegintzen bagara. / Goazen, Casal-
dálígak aipatzen dituen / pobreak, martiriak /
kontenplatiboak, / militanteak eta / askape-
nerako teologoak, / eta nik gehitzen ditudan
/ etxekoandreak, / aita-amak eta seme-ala-
bak, / irakasleak, / gazteak, / langileak / auzo
apaletakoak / ... / Goazen bat eginda / eta
Jainkoa gurekin».



Narziso berriaz gogoetak liburuan Juanak pentsamendu
posmodernoa aztertu zuen eta saiakera honi esker
Eusko Jurlaritzaren «Pedro Axular» saiakera
saria beragandu zuen 1991. urtean



*J*uana Atxabalen ibilbidea komentatzekoan argi geratu dira moja euskaldunarengan nabarmentzen diren zenbait alderdi eta ezaugarri garrantzitsu: haren fede irmoa; behartsu, baztertu eta zapalduetikiko elkartasuna eta haien aldeko lan etengabea; filosofia, irakaskuntza eta euskara uztartu nahia; sustrai euskaldunekiko atxikimendua...

Azken atal honetan, Axular saria jaso zueneko garaian eginiko elkarrizketa eta adierazpenetan (*Diario 16*, 91-12-26; *Deia*, 92-02-23 *Emakunde*, 7, 1992/Martxo) jaulkitako zenbait iritzi batu nahi izan ditugu, karmeldar ausart honen pentsaera hobeto ezagutu ahal izan dezagun.



Juana Atxabal ahizpa karmeldarrez inguratuta

Erlijioa

Bokazio erlijiosoa: «Nik hamasei urte inguru nituela sentitu nuen Jainkoak deitu egiten zidala neure bizia osorik emateko, bera neure ilusioa izateko. Eta indar horrek eraman ninduen hemeretzi urterekin karmelita izatera. Bizitzan zehar gorabeherak izan ditut, mundu guztiak bezala, baina orain esan behar dut pozik nagoela, alai, serenitatez».

Andrazkoen abadetza: «Nik uste dut helduko dela momentu bat, segur aski nik ez dut ezagutuko, baina ziur nago, emakumeen abadetza helduko garela, zeren eta teologikoki

ez baitago diferentziarik. Jainkoaren seme-alabak gara denok, eta prozesu hori gizonezkoen agintea, soziologikoa da ez teologiko».

Abadeak ezkontzeaz: «Ez diot arazorik ikusten horri. Ezkonduak apaizak izan daitezke, zergatik ez? Hori ez doa Jesusen mezuaren kontra. Jesusek gizon ezkonduak aukeratu zituen bere jarraitzaile modura, eta, oker ez banago zelibatoa XI. mendeko kontua da. Nik ez dut problemarik ikusten».

Konpromiso erlijiosoa: «Giro aldetik ere aldaketa izugarria hemendik hara. Auzategi baztertuetan bizi izan nintzen, jendearen ondoan, pobreen artean. Eragin haundia izan du nigan Hego Ameriketak. Planteamendu erli-

jiosoak ere birplanteatzera heldu nintzen. Asko ikasi dut hango pobreziatik, hango egoeratik, hemengo munduaren analisiak egi-teko eta gure aurrerapenak beste era batera ulertzeko».

Kristoren mezuaren erroale: «Nik neure mezua daramat, nahiz eta besteren planteamenduekin zabala eta errespetuzkoa izan. Ni neu Jesukristoren mezuaren garrantziaz ziur nago».



1996ko abenduaren 20an, Basauriko Urbi institutuko ikasle, irakasle eta langileek omenaldi samur bat eskaini zioten handik lasterrera jubilatuko zen Juana irakasleari, hamalau urtez eginiko lana eskertuz.

Argazkian omenaldiko une bat jasotzen da



«Pedro Axular» saiakera saria irabazi izanak hainbat hedabidetan agertzera bultzatu zuen Juana Atxabal. 1991-1992 urteetan ugariak izan ziren moja filosofo euskaldunari eginiko elkarrizketak eta hari buruz idatzitako kronika eta iruzkinak

Gizarte auziak

Feminismoa: «Jainkoa ez da gizonezkoa, ez da gizaki bat, ez da gutariko bat, ez da ule zuri bizarduna, ez da mundutiar bat, traszendentea da eta bien iturri, femeninotasunaren eta maskulinotasunaren iturri. Aita da eta Ama da».

Antisorgailuak eta homosexualitatea: «Nire ustez, Elizak adi egon behar du zientziak zer dioen, ez ixilik egoteko, ez, bere eritzia eman behar du, baina ez dogmatikoki. Zientzilariak, soziologoak, emakumeak... zer dioten entzun behar du. [...] Homosexualitatea ez da anormaltasun bat, beti gertatu izan da historian zehar. Gauza normala da, nahiz eta estatistikoki anormala izan».

Kontsumokeria: «Kontsumistak gara, ondo gaude eta holan menperatu zoriontsu izate-ra heldu gara. Ezin gera gaitezke posmoder-

notasunak eskaini nahi digun ahultasunean. Utopiak hil egin dira, baina momentu honetan Gizateriak, aurrerapen teknologikoak direla-eta, arreta haundiagoa eskaini beharko lioke Mundu zoriontsuago eta igualitariago bat eraikitzeari, Hirugarren Munduko miseriari irtenbidea ematearren. Gaurko gizarteak ahalmena baitu nazioarteko ordena ekonomiko eta sozial berri bat sortzeko».

Intelektual garaikideak: «Egungo manipulazioaren aurrean ez dut eragin intelektual sendorik ikusten korrante kritiko eta oposiziozkoetan. Uste dut gure intelektualengandik konpromiso handiago bat itxaron genezakeela, nahiz eta gaurko uholde manipulatzailearen aurrean oposizio eraginkor bat egitea zaila den. Hala eta guzti ere, nik neuk itxaropen handia daukat gizakiak birsortzeko duen ahalmenean».



Oraindik argitara eman gabe dagoen *Goazen bat eginda* saiakeran, Juana Atxabalek Xabier Zubiri donostiar filosofoaren *Hombre y Dios* liburuaren itzulpen laburtu eta iruzkindu bat eskaini nahi dio irakurle euskaldunari, berriro ere filosofia eta euskara uztartzuz



Jubilazio-omenaldiko bazkaria Bilboko Artxandako jatetxe batean izan zen. Argazkian, Mari Jose Landeta institutuko zuzendariaren eskutik opariak jasotzen

Euskal gizartea

Herrigintzaren aldeko hautua: «Banekien nora nentorren. Ordurako [1979] ikastetxeetan euskara sartzen hasia zen, ikurrina ez zegoen debekatua, geure agintaritzak eskuratua, neurri batean bederen. Irakaskuntza publikoan eskatu nuen sarrera filosofia euskaraz irakasteko. Ondarroako institutuan hasi nintzen».

Itxaropentsu euskal gizarteaz: «Euskal Herriak muturreko latzak hartu ditu historian zehar. Badu esperientziarik. Ez dugu dogmatikoak izateko motiborik. Kultura txiki bat da gurea. Ekologikotasun kulturean geuk daramatzagu geure koloreak, geure izatea, geure hizkuntza.

Kulturen arteko elkarrizketa horretan hartu behar dugu parte, apalki. Esperantzarik izan dezakegu, geure proiektuaren alde gogor jotkatzen badugu. Ez da aurrerantz goazen ala ez, argi ikusten. Baina, jakina, beste kulturen ondoan eta haiekin batera gogor jokatu behar dugu».

* * *

Hel bekio moja solidarioari berak lagundu eta artatutako behartsu eta baztertuen esker ona, eta iraun beza gu guztiongan moja euskaldunak euskal kulturen eta irakaskuntzan ereindako haziaren erretze pozkor eta itxaropentsuak!



2001. urteko urriaren 27an 50 urte bete ziren Juana moja sartu zela. Urrezko eztaioak ospatzeko familia osoa joan zitzaion Juanari Gasteizko komentura eta giro bero-beroan ospatu zuten egun garrantzitsu hori 2002ko urtarrilean. Argazkian ahoz Ana Marirekin dakusagu Juana, oraingoan ere irribarretsu, 50 urteko nekeak, lanak eta lorpen handiak xumetasunez ospatuz

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagaratik, eskerrak eman nahi dizkie:

- *Karitateko karmeldarrei (Gasteiz)*
- *Cazalis-Atxabal familiari*

Egilearen oharra:

Nire esker ona agertu nahi diet Galdakao, Gasteiz eta Venezuelako moja karmeldarrei eta baita Ana Mari eta Mertxe Atxabali ere, eskainitako laguntzagaratik.

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2004ko azaroa
Ale-kopurua:	2.500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Joseba Olalde (g.b.)
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2191-7 (Lan osoarena) 84-457-2193-3
L.G.:	BI-2.961-04